



Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2018ko apirilaren 9tik 13rako astea



INGURU MAKROA:

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...




ASTE HONETAN MERKATUETAN

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisisa

irroguneko ekoizpen industrialak otsailan aurreikusitakoa baino askoz ahulagoa izan zen, ekoizpen ergetikoaren handitzeak ondasun iraunkorren eta kontsumo-ondasunen ekoizpenaren txikitzea ekarzteko ez zuelako. Atzerakada horiek Europako hainbat lekutan otsaila amaieran egin zuen uraldi txarraren ondorio izan ziren, baita Alemanian izandako grebena ere. Euroa partekatzen ten 19 herrialdeetan, ekoizpen industrialak hilabete arteko $-0,8\%$ jaitsi zen. Urte arteko datua, aldiz, $2,9\%$ igo zen. Energia-ekoizpenak ehuneko $5,7\%$ egin zuen gora otsailan, urtarrilean $8,9\%$ behera egin doren, baina beste zenbait osagairen urteko igoera aurreko hilekoa baino are ahulagoa izan zen.


Adierazlearen azalpena

industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den gaitasuna erakusten duen indize bat da. Hileroko enpresei industria-ekoizpenaren egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Indizearen bidez, ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen azalpena egiteko.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

WEB: KPI ETA FEDen MINUTAK



Datuaren analisia

artxoan KPIa % 2,4koa izan zen, analistek aurreikusi bezala (otsailen, % 2,2). Hil osoan % 0,1 jin zuen behera, aurreko hilarekin alderatuta, gasolinaren prezioaren beherakadaren ondorioz. Kontsumo Pertsonalaren Gastuen Prezioen Indizea (diru-politikaren inguruko jarrera zehazteko duan, Fed-eko kideek arreta berezia jartzen diote adierazle horri). Fed-en aktak argitaratu ondoren, FOMCko kideek, azken bileran, ekonomiaren sendotasunari buruzko konfiantza handiagoa erakutsi zutela jakin zen, bai eta datozen hiletan inflazioa % 2ko egonkortasun-helburura tsiko dela uste dutela. Diskurtsoa bat zetorren Estatu Batuetako diru-politika pixkanaka gortzeko zegoen jarrerarekin.

Adierazlearen azalpena

9la hilero prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin agutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat onditu edo txikitu den, ehunekotan adierazita.

Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.


Fed-en aktak Erreserba Federalaren bilera egin eta bi aste geroago argitaratzen dira.

Batzordearen diru-politikari buruzko bileraren erregistroak dira. Diru-politikari dagokionez, FEDek duen jarrerari buruzko informazio zehatza eskaintzen dute minutek.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: BALANTZA KOMERTZIALA



Datuaren analisisia

Lehen aldiz 13 hiletan, Txinak ezohiko defizit komertziala izan zuen martxoan, esportazioek behera eta inportazioek gora egin zutelako, barne-eskari handiaren ondorioz. Kanpo-salmentak % 2,7 jaitsi ziren Txinako Urte Berriko oporraldien ondorioz, nahiz eta % 11,8ko hazkundera espero zen. Astealde, inportazioak % 14,4 hazi ziren iazko datuekin alderatuta, eta otsaileko % 6,8ko hazkunderaren aldean. Kasu horretan, hazkundera espero baino handiagoa izan zen. 2018ko lehen hiru hilabeteetan, balantza komertzialaren superabita iazko epe berean bertan bertan % 21,8 handiagoa izan zen, inportazioak esportazioak baino gehiago hazi zirelako. AEBek Txinarekin duen erlazioak gora egin zuen, superabit txinatarraren jaitsiera orokorra izan zen arren.

Adierazlearen azalpena

Balantza komertzialaren saldoa esportazioen eta inportazioen arteko aldea da, hau da, herrialde batean ekoiztu eta kanpoan saltzen diren ondasunen eta zerbitzuen balioaren eta beste herrialde batean ekoiztu eta erosten diren balioaren arteko aldea. Saldoa negatiboa denean defizit komertziala ematen dela esaten da, hau da, esportazioen balioa inportazioena baino txikiagoa denean; superabit komertziala, ordea, esportazioen balioak inportazioena gainditzen duenean ematen da. Adierazle ekonomiko hori herrialde baten ordainketen balantzako osagai bat da.

INGURU MAKROA**KASU DATORREN ASTEAN GAI
HAUEI...**

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
04/16	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	19.6
04/17	Txina	Urte arteko BPGd	% 6,8
04/17	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 9,7
04/17	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 6,4
04/17	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
04/17	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	% 4,3
04/17	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	86.0
04/17	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	-1.5
04/17	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
04/17	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% 2,7
04/17	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0,3
04/18	Japonia	Balantza komertziala	499.2b ¥
04/18	Japonia	Urte arteko esportazioak	% 5,6
04/18	Japonia	Urte arteko inportazioak	% 6,0
04/18	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 2,7
04/18	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 1,4
04/18	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
04/18	Estatu Batuak	Liburu Beixa - Erreserba Federala	0
04/19	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
04/20	Japonia	Urte arteko KPIa	% 1,1
04/20	Espainia	Balantza komertziala	--
04/20	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-0.1

ASTE HONETAN MERKATUETAN

JRTSA:

Alantze positiboa mundu osoko burtsa-indizeetan, gazkortasunarekin, eta hazkunde handiagoak EBetan. Bilakaera hori, hein batean, AEBen eta txinaren arteko borroka komertzialaren baretzeak ekarri ditu. Izan ere, joan den astelehenean, Txinako presidentek tentsio komertzial hori baretzea lortu zuen, eta merkatu txinatarra nazioarteko inbertitzaileei erabakitzeke promesa egin zuen, hainbat produkturen esportazio-zergak murriztuz, automobilena, esateko erako. Nolanahi ere, asteazkenean, gerra komertzialaren tregoarean ondotik, tentsio geopolitikoak bertu ziren berriro. Siriak bereganatu zuen merkatuen erreta guztia, duela egun batzuk gertatutako eraso militarikoari erantzuteko, AEBek Siria airez erasotzeko erabaxua egin baitzuen. Eta Ekialde Ertaineko egoera ere hasiaz gain, Trumpek Errusiari "mehatxu" egin zion txinaren egoeraren aurrean izan zuen jarreragatik. Bada, Estu inguru horretan, salmentak izan ziren nagusi errenta aldakorrean. Hala ere, zuhurtzia horrek indarra eraldatu zuen asteko azken egunetan, eta inbertitzaileen eragoa berotu egin zen berriro, Siria erasotzeko ekimena txin berehalakoa izango ez zela esateko AEBeko presidentek geroago egin zituen adierazpenen ondoren. Argitaratutako datu makroak, momentum eragatik ere ingurune sendo bat islatu zutenak, garren mailan geratu ziren.

ERRENTA FINKOAK:

erisku handiagoa duten posizioenganako joerak erantz bultzatu zituen zor subiranoaren erentagarritasunak, European zein AEBetan. Fed-en eta EZren akten argitalpenek nobedade gutxi ekarri zuten, eta apenas izan zuten eraginik merkatuetan. Erreserba erderalak hurrengo hilabeteetan inflazioa % 2ra heltzea espero zuten. Asteazkenean argitaratu zen KPIaren datuak aurreikuspenak bete zituen.

BISAK/LEHENGAIK:

olarra pixka bat ahuldu zen gainerako dibisen aurrean. Estalde, euroaren sendotasunari eta horren ondorioei iruz EBZren aktetan jasotako adierazpenek Europako bisaren balio-igoera mugatu zuten, eta ez zuten eragimendu aipagarririk izan Yenaren eta Liberaren aurrean. Lehengaiak begira, petrolioaren prezioa % 9,09 o zen, Ekialde Ertainean tentsioa biziagoa izateaz eragin, EIAren eta LPEEren eskari-kopuruak gora egingo dela aurreikusi baitzen.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2018
MSCI WORLD (Eur)	173,05	1,22	-3,26
IBEX 35	9.767,30	0,87	-2,75
DJ EURO STOXX 50	3.448,00	1,17	-1,60
DJ STOXX 50	3.042,66	1,07	-4,25
FTSE	7.264,56	1,13	-5,50
S&P 500	2.656,30	1,99	-0,65
Dow Jones	24.360,14	1,79	-1,45
NASDAQ	7.106,65	2,77	2,94
NIKKEI 225	21.778,74	0,98	-4,33
MSCI GORAKORRAK (Eu)	372,81	0,16	-1,61
MEXBOL	48.768,30	1,76	-1,19
BOVESPA	84.334,41	-0,57	10,38
SHANGHAI	3.308,38	0,89	-4,48
Errusia Rts			
Mosku	1.104,51	-10,67	-4,32

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald 2018
ALEMANIA 2 URTE	-0,58	0,01	0,05
ESPAINIA 2 URTE	-0,33	-0,01	0,02
AEB 2 URTE	2,36	0,09	0,47
ALEMANIA 10 URTE	0,51	0,01	0,08
ESPAINIA 10 URTE	1,24	0,01	-0,33
AEB 10 URTE	2,83	0,05	0,42
ALEMANIA 30 URTE	1,18	0,02	-0,08
ESPAINIA 30 URTE	2,33	0,11	-0,52
AEB 30 URTE	3,03	0,01	0,29
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/23	55,11	-2,78	10,19
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/23	275,96	-9,94	43,52

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2018
Dolarra / Euroa	1,23	0,41	2,72
Yena / Euroa	132,41	0,82	-2,09
Libera / Euroa	0,87	-0,62	-2,43
Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2018
Petrolio (Brendt)	72,85	9,09	9,02



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.